



Prentsa oharra

Klusterraren enpresen fakturazioa %12 jaitsi da 2009an eta 2010ean jaitsiera berdina izango dela aurreikusten dute

EIKENek "Ikus-entzunezko berrirako" aldaketaren oinarriak eta bere negozio-aukerak aurkeztu ditu Zamudion, Eiken Advance ekimenaren testuinguruan

- **Informazio estrategikoa PwCk, SPRIren laguntzaz, EIKENerako eginiko azterketan jasota dago, eta gaur bertan aurkeztu da Klusterreko Bazkideen Urteko Batzarrean.**
- **Krisi ekonomikoa eta horrek ikus-entzunezkoen sektorean izandako eragina gai nagusietako bat izan da, Eikenen Urteko Txostenaren aurkezpenean. Zamudioko Teknologia Parkearen auditorioan egin den ekitaldiaren buru Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza eta Informazioaren Gizarteko zuzendari Xabier Zabalza izan da.**

Zamudio, ekainaren 25a. Eiken – Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak gaur aurkeztu ditu, bazkideen Batzar Nagusian, negozio eredu berri batera iristeko sektorearen eraldaketaren lidergoa eskuratzeko eginiko txostenaren emaitzak. Ekimenak, Eiken Advance programaren testuinguruan kokatzen denak, enpresa-jardueraren hainbat arloren garapen aukerak aztertzen ditu. Sektore osoak arlo horietara jo beharko du, egoera egonkorra lortu ahal izateko epe labur eta ertainean.

Juan Mari Gurrutxagak nabarmendu duenez, gaur egun sektorea; alde batetik, krisiaren eta murrizketen eraginpean dago; eta bestetik, negozio ereduaren aldaketa ekarri duen digitalizazioak ikus-entzunezkoen sektorerako ekarritako eraldaketaren eraginpean, horrek ziurgabetasun handia eragin baitu". Horregatik, hain zuzen, Eiken Advance bezalako ekimenak "funtsezkoak dira lehiakorrak izan gaitzen" ziurtatu du.

"Ikus-entzunezkoetarako aukerak" txostena, PwCk egindakoa, Eikeneko Urteko Txostena aurkezteko ekitaldian ezagutarazi da, eta, bertan egon da Xabier Sabalza, Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza eta Informazioaren Gizarteko zuzendaria. Sabalzak ziurtatu du Eusko Jaurlaritzak Ikus-entzunezko industria bultzatuko duela, beste arlo guztietan bezala, eta "sektore honek ondo antolatuta eta helbide ona hartu duen klusterra duela" aipatu du.

Hain zuzen ere, SPRI, COMPITE programaren "ereduzko proiektuen" bidez, berriki sartu da Eiken Advance ekimenean. COMPITE programa lehiakortasunean eta berrikuntzan oinarritutako enpresa ekimenak bultzatzeko sortu zen. Eikenek proposatutako ekintzen programa eredutzat jo

dute, euskal enpresen sareak egungo egoera ekonomikoari aurre egiteko eta krisia amaitzean lidergo posizioan egoteko egin behar duenari dagokionez.

Alfonso Cossiok, PwCko zuzendariak - Telekomunikazioak eta Medioak, "Aukera" Txostenaren ardatz nagusiak aurreratu ditu eta Eiken Advance "merkatu berriak ireki ditzala proiektu - motorea" izan nahi duela adierazi du. Cossiok azpimarratu du "bideo-kontsumoren patrioiak aldatzen ari direla" eta 4 urte barru, "gastu-digitala" %50 igoko dela, batez beste".

Cossiok bideojokoak eredutzat hartu ditu, "aukera berria" gisa. "Seme-alabeen Playstation baino gehiago dira bideojokoak" esan du. "Badago etorkizun handia duen euskarririk, bideojoko industriari dagokionez: advergaming-a, internet jokoak, migukorrentzakoak eta "serious games" edo didaktikoak, esaterako. "Ikus-entzunezko industria Informazioaren Gizartearen erdi-erdian dago", amaitu du.

Gaur egungo egoera

Klusterraren lehendakariak adierazi duen moduan, proiektu hau martxan jarri da, neurri handi batean, aurreikusitako ziurgabetasun egoeran gaudelako eta "ikus-entzunezko berrirako" aldaketari heldu behar zaiolako.

Oro har, krisiaren eraginez % 12 jaitsi da 2009an Eikeneko enpresa bazkideen fakturazioa (fakturazioa 107 milioi eurokoa izan da), eta aurreikuspenaren arabera 2010. urtean beherako joera izango da nagusi. Gaur aurkeztutako datuen baitan, enpresa txikiek hobe eutsiko diote egoerari eta langileak mantenduko dituzte; haatik, enpresa handiek, ziur asko, langileen murrizketak egin beharko dituzte.

2009ko urteko txostena

2009ko ekitaldian eta 2010eko orain artekoan, Eiken – Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak hainbat ekimen egin ditu, enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta egungo ekonomia egoerari irteerak bilatzen laguntzeko. Ekimen horiek Klusterra osatzen duen Estrategia Batzordeen esparruan egin dira, hau da: Produktu eta Negozio Eredu Berriak, Talentua eta Enpresa Kudeaketa, Internazionalizazioa eta Azpiegiturak.

Produktu eta Negozio Eredu Berriak Batzordeak dagoeneko egin du EikenBANKeko III. aldia, talentu ez profesionala aurkitzeko eta mundu profesionalarekin harremanetan jartzeko xedea duen programa. Era berean, Eiken Advance proiektuaren lehen faseak bete, eta gaur jakinarazi ditu emaitzak. Horrez gain, klusterren arteko lankidetzak bultzatu du Eiken-Gaia ekimenaren bidez.

Talentuaren eta Enpresa Kudeaketaren arloan, Gidoi Faktoria egitasmoa martxan jarri izana nabarmendu behar dugu. Eikenek eta EITBk bultzatutako egitasmo horren bidez, telebistarako gidioetan espezializatutako lehen ikasketa zentroa sortu da. Aldi berean, Eikenek enpresen lehiakortasun profesionala hobetzeko diseinatutako Prestakuntza Plana garatzen jarraitu du.

Internazionalizazioari dagokionez, euskal ikus-entzunezkoen sektoreak finkatzeko estrategiari eusten dio, eta, horren harira, nazioarteko hainbat azoka garrantzitsutan egon gara Basque Audiovisual izenpean, hala nola Cannesen egindakoetan (MIPTV.MIF eta MIPcom). Era berean, hirugarren aldia egin berri duen Animabasque-Business Nazioarteko Animazio Azoka finkatu da.

Amaitzeko, Azpiegituren Batzordeak hainbat proiektutan parte hartu du, hala nola Abagunearen Behatokia, Inteligentzia Lehiakorraren Sistema – Klusterra (SICC-Eiken), edo Orkestra-ren Action Nerwork programa. Halaber, sustatzeaz gainera, Estatuko Ikus-entzunezko Klusterren eraketan parte hartu du.
